

Hedadura: 47'2 Km2

Jaiak:

- Herrikoak: Maiatzaren Yan, Santa Krutz. Jai honetatik gertuen dagoen igandean Mirandaola burdinola martxan jartzen da.
- Santa Krutz-Txiki: Irailaren 14ean, Korostako gailurrera Erromeria.

Biztanlegoa: 9.888 biztanle

- Brinkola: Abuztuaren 28an, San Agustin.
- San Blas: Otsailaren 3an. Jakien bedeinkapena.
- San Nikolas: Abenduaren 6an. Ume-taldeek herria zeharkatzen dute, hauetarik bat <<apezpikuz>>antzia.

**L**egazpi herriak sekulako industri gorakada jasan du azken larogeitamar urteetan zehar, eta honenbestez, nekez ikus daiteke arestiko mendeetan zehar gorpuztutako herriaren itxura.

Erdi Aroan, burdinola hidraulikoak ezarzteaz batera gauzatu ziren bere herri izatearen oinarritzko printzipioak. XIII. mendetik aurrera burdinolak neurrigabe ugaltzea, inguruneak industria honetan zuzenean erabiltzeko berezko baldintzak izateari zor zaio.

Litekeena da udalerriko eta ingurueta-ko burni-meatoki aunitzak, erromatarren aurreko garaian haizeoletarako landuak izatea. Udalerriko hainbat gunetan, metalgintzako sistema zahar horri egotzen zaizkion labe-txatar hondarrak aurkitu izan dira (34-44 eta 34-45).

XII. eta XIII. mendeetan ur-indarra erabiltzen hastearekin ekoizpena ikaragarri areagotu zen, Legazpiko ibarrean 20 burdinola gutxienik batean aritu zirelarik. Hauetariko bakoitzak urtean ekoizten zuenak 1000 kintaletako kopurua urratzen zuen. Urola buruko ibaien ur-etorriak eta basoek zuten barnerak -hemendik eskuratzen zen ikatza- arrazoitzen dute halako ugalketa arina.

XVI. mendean zazpi baizik ez ziren gelditzen, beren iharduera erregai-beharrei oso baldintzapeturik zegoela.

Egoera honek eragin nabarmena izan zuen herriko bizitzarengan, biztanle kopurua ikaragarri murriztu eta 60 bat etxe hutsik



**Udaletxea.**

utziak. Gainera, sistrak eta borrokak izan zituzten nekazariekin basoak erabiltzeagatik.

Burdinariiek beren eskubideen alde egin zuten, inguruko lehen biztanleak zirela argudiatuaz; nekazariak berriz, baso eremuetara emanak zeuden sailak lurra lantzeko zabalteko buru-belarri borrokatzen zuten.

1532an, burdinoletako jabegotzak mugatuaz eman zitzaion amaiera auzi hauei; gaur egun ezagutzen diren mugarrien arabera dexenteko hedadura zutela jakin daiteke.

Elkarbizitza-arazoen hortxe iraun zuten halere, urte batzuetan zehar, Segura ordezkatzan zuten agintariak erakusten zuten jarrera zorrotza zela eta.

1384ean Legazpi Segurari uztartu zitzaion. Berehala egin zen akordio honen gairenako zalantza, batura honek zuen izaera gezurtia salatuz. Herritarren esanetan tramite edo izapidaketak gezur bitartez gauzatu ziren. Jarrera haul 1397an seguraren talde armatu batek egindako erasoaldiaren ondorio da, 300 gizonak 18.500 errealetako balioa zuen abere saila lapurtu bait zien, Legazpiarrek ordaindu gabeko errege zerga bat ordaintzeko, segurarrak ziren aldetik eskatzen zitzaiena.

Legazpiarrek berriz, Alfonso XI.ak 1338an eman zien Burdinolen Forua zela eta, ordaintzea libre zutela zioten. Foru honetan erabaki zen burdinariak erregeari burniaren ekoizpenetik eratorritako zerga soilik ordainduko ziotela, (curniaren hamarren zaharra. izenez ezagutzen zena. Gipuzkoako korregidoreak, Moro Jn.ak, Legazpiaren aldeko epaia eman zuen baina Segurak gora jo eta epaitegiek arrazoi eman zioten.

Baturak iraun zuen 224 urteetan zehar, kalteak etengabeak izan ziren eta egoera honek banaketaren aldeko jarrera sustatu zuen.

Beste hainbat indarkeria-ekintzen artean gehien amorratzen zituena, Segurako norba-



**Mendiarazko gurutzea.**



**Jasokundeko Andra Mariaren**  
parroki-elizaren barnealdea

nakoen etxeak konpontzeko ordainketa derrigorrez egin behar izatearen -harresia- ren atal zirela aitzakitzat hartuaz- edota herriko zaindarien nahiz Udaletxeko atezainaren soldadak ordaindu behar izateak, edota guda-taldeen igaroaldiak eragindako gastuak e.a.. Felipe II.aren hileta-elizkizunakere, liskar latzak ekarri zituen.

Azkenik 1610ean eta Segurak gogotik aurka egin arren, hiribildu titulua eskuratu zuen, honek zekartzan udal-eskubideekin batera. Familia bakoitzak 20 dukat emanaz lagundu zuen, garai hartan bastanteko kopurua zena.

Askatasuna eskuratzearekin Udaletxea eraiki eta Parrokia berritzeko lanei ekin zitzairen. Gastuak ikaragarriak izan ziren eta orduko zoritxarreko gertakariei lotuaz, 1794eko frantsesen eraso edota basoen murrizketa eta honek herriko lan-aribidean eragin zituen ondorio gorriak, neurri latzak hartzera behartu zituen. Udal-lurrak pribatizatu zituzten, enkante edo subasta publiko bitartez salduaz. 1794 eta 1840 bitartean udal ondarea hein handian murriztu zen. 1815ean bakarrik, 169 lursail salmenta burutu ziren. Lur hauetarik asko nekazaritza-lur bihurtu ziren eta honek baserri ugari eraikitzea ekarri zuen.

Herriaren bizitza eratzean gogoan izatekoa da bertatik Gaztelarako errege bidea igarotzen zela; bide honen tajuketa XVIII. mendean aldatua izan zen Deskargako igarobidea egiteaz batera. Erabaki honi Oñati eta Legazpik aurre egin zioten, errepede nagusitik bazterturik uzten bait zituen. 1845ean Oñati Gipuzkoari erastearekin egoera bere onera etorririko da, behin-betiko Oñati Gipuzkoako lurraldean barne-sartuko duen errepede-puska eginez.

Mende amaieran, Legazpiren garapen modernoa sustraitik markatuko duten bi gertakari gauzatzen dira. Labe Garaiek ekoizten zutenarekin lehiakatu ezin zuten zero,



**Jasokundeko Andra Mariaren**  
parroki-eliza.

burdinola hidraulikoak ixteaz batera trenbidea ailegatu zen, Madrildik etorri eta Frantziarekiko mugaraino iristen zena. 1932ra arte ordea, ez zen Legazpik hain gogoko zuen geltokia lortu. Ordurako burniaren industriak gaina hartua zion birmoldaketa aldiari eta Patricio Etxeberriak sortutako faktoria bidez, herriaren ardatz eragile bihurtzeko zorian zegoen.

Aipatu ditugun faktore hauek garapen prozesu bat bideratu zuten, azken arnasaldiak oraintxe bizi izaten ari direla. Hiri hazkuntza batez ere Eliza eta Udaletxe inguruan gorpuztu da, herriko beste zenbait gune berriz, gertakari honetatik guztiz baztertuak egon direla.



**A**ntzin garaitik Legazpiko habitata sakabanaturik tajutu da. Baserriak -antolaketa arrazoia- tarte-, bi sailetan banatzen ziren eta bi sail hauen arteko muga Mirandaolako etxeak eta burdinolak osatzen zuten, Goiko auzoa edota Ergoeneri zegozkionak. Mirandaolatik iljarraren norabidea jarraituaz Beheko auzoa edota Elbarrena zabaltzen zen Zumarragarekiko mugetaraino iritsiaz.

## ■ ELBARRENA

Elbarrenan Eliza lekutzen da; gerora udaletxea, ospitalea e.a. ezarri zitzaizkion hirigune erna-berria sortuaz. 1927az geroztik, gune hau berritzeko eta gorpuzteko lanei ekin zitzairen, gorenaldirik handiena 60.eko hamarkadan izan duela. Epe horren barruan bakarrik, 1000 etxebizitza eraiki ziren Patricio Etxeberrialabeetako langileentzat.

Eraikitako sailak Zumarragatik gertuko muturra izan ezik, Elbarrenak duen azalera ia osorik estali du.

## ■ HIRIGUNEA

**A**restian azaldutako prozesu honek eraikuntza modernoak nagusi diren hiriguneta bideratu du. Hauen artean badira hainbat elementu aipagarri, Ospitalea, zenbait landetxe edota Patricio Etxeberriako ola-multzoa esate baterako. Errepedearen alde banatan kokatutako pabeloi handiz osatzen den multzo honek itxura adierazgarriko kalea eragin du.

Iraganalditik jasotako monumentu-ondareari dagokionez, Parroki Elizak, Udaletxeak,



**Elorregi baserria.**

hainbat baserrik eta bestelako zenbait testigantzek osatzen dute.

■ **Jasokundeko Andra Mariaren Parroki-Eli-za (28-59)**

XIV. mendez geroztik bada iadanik bere berri. Hauxe izan zen 1384ean Legazpiko biztanleek Segurarekin bategite arazotsua burutzeko hautatutako lekua.

Antzin-garaitik Lazkaoko jauntxoan nagusitzara meneratua egon Zen, antza denez hauek ez omen zuten gainera, gehiegizko kezkarik eraikuntza zaintzeko. 1699an gotzai-barrutiko ikuskariak etxearen egoera kaskarra zela eta, hondaturiko atalak bertan behera botatzeko agindu eman zuen. 1700ean eliza berriaren lanetarako baimena luzatu zuen, Lucas Longo Elgoibartarraren aginduak jarraiki burutu zena. Gangak egiteko lanetan Beasaingo Pedro Carrerak eta bere seme Martinek esku-hartu zuten.

Aurreko eraikuntzatik, 1653an egindako Gurutze Santuaren Kaperari eta hainbat erretaulari eutsi zai. XVIII. mendeko berrikuntzak hiru nabetakoa tenplua ekarri zuen, gurutzeriazko gangak eta inguruan arkupea. Oinaldean kokaturiko dorreak, XV. mendeko kanpaia du.

■ **Udaletxea (28-60)**

Udaletxea 1730ean eraiki Zen, mendebete lehenago udal-zerbitzuak biltzeko eraikitako etxea ordezkatuaz. Oraingoan bestelako ekintzak burutzeko eraikuntza egiten da; igarobidean ziren gudataldeentzat eta garrantziko jendearentzat ostatuleku izan behar zuen.

■ **Bikufia Jauregia (28-27)**

Izen bereko familiararen oinetxe izan da, erdi arotik burdinola baten jabe. Eraikuntzak nabarmen bereizten diren bi aldi ditu. Antzinakoena, egungo jauregiaren oinarri izan zen dorretxeari dagokio, XVI. mendekoa. Baserri honetan Burdin-Museoa lekutzeko lanak burutzen ari dira.

■ **Zumarragara doan errepidepean, herri honetatik oso gertu, tente dirau Mendaritzko (28-39) gurutzeak. Plateresko estilokoa, XVI. mendearen bigarren erdialdekkoa izan daiteke. Inguruetan Galdos etxea altzatzen da (28-40), eraikuntza zaindu dotorea.**

■ **Olaetxe etxea (28-35) eta Urtatza-Zahar baserria (28-30) aurrekoaren sail berean sartzen dira monumentuzko eraikuntzei dagokienez. Lehena dorretxea izan zen eta**

baditu hainbat ezaugarri interesgarri: Leiho bikoitzak eta hiru arkutako sarrera-nagusia. Halaz ere, eraikuntzaren atal handi bat orain gutxiko birmoldaketa-lanen ondorio da.

Urtatza-Zahar oinetxea izan da eta oraindik familiarren armarrria dauka.

■ **Urtatza zeharkatzen duen ibai-adarrari gaina hartuaz Arrolamendi muinora ailegatzten da. Antzuola eta Otiatirekiko udal-barrutia mugatuaz, mendi honetan neurri handitako hilobi-tumuluak lekutzen dira (28-23, 28-24, 28-26). Eneolitiko-Brontze aroari dagozkio. Hauetara ikustaldia egiteak, Urola eta Debako erreken mugan zehar mendi ibilaldi polita eskaintzen du.**

■ **ERGOENA**

Ergoanek, Goiko auzoak, Telleriarte eta Brinkola gune nagusi dituela, duen morfologiaren muinari eutsi dio, lurganadutza izanik aribide nagusi, hiriguneko biztanleen industri-aribidearen monopolioari aurrejarriaz.

■ **Mirandaola eta San Miguel sailak**

Mirandaola baserri eta burdinola (34-5) izan da XVI. mendez geroztik bi biztanlegu-eneen arteko muga.

Burdinola orain hogeitau urte berri zuten eta olategiei baseliza eta klaustroa ezarri zitzaizkien. Tailerrak, Mirandaola baserrian giltza eskatuta bisita daitezke. Ospakizun bereziak daudenean labeak pizten dira eta makineria Patricio Etxeberriako olagizonen esku trebeek eraginda ibiltzen da.

San Miguelko saila ibaiaz beste aldera lekutzen da. Eraikuntzak harrizko bide baten inguruan biltzen dira eta badirudi, bazter utzitako Errege Bidearen atal bati dagokiola.

Gurutze-tokia oso neurri txikikoa da (34-1). Halaz ere San Miguelen taila errenazentista polita biltzen du.

San Miguel baseliza (34-2) goigune batean lekutzen da. Guztiz tenplu apala da. Ezaugarriarik adierazgarriena, irudi geometrikoak irudikatzen dituen harrizko zoria da.

■ **Telleriarte**

Eraikitako sailak Brinkolara doan antzin-bidea markatzen du, Otiatiko biztanleek tren geltokia erabili ahal izateko Udandaraino egindako bideak ordezkaten duena. Oñatiko udalak mende hasieran trenbidea eskuratu zuen diru kopuru handia ordainduaz.

Gune honetan biltzen dira udalerriko testigantza historikorik onenak.

Monumentu-sailean Elorregi baserriak (34-9) egiten du buru. Tamaina handiko baserritzar zaharra da. Atari ikusgarria du: Hiru arku zorrotzek osatzen dute, irudi geometrikoaz apainduriko giltzarriak dituela. Ezaugarri gotikoen osagarri fatxadan sakanatzen diren leihoak ditu. Barne-egitura ere interesgarria da, teilatuaren-euskarria nabarmenduaz.

Sarrera, Itiurtegiko (28-28) indar-etxe-ko uraskaren parean ibaia zeharkatuaz egiten da.

Elorregi errota (34-7), orain urte gutxi arte bazebilena, inguruetan lekutzen da; bai-



Brinkolako San Agustin eliza.

ta 1824ean auzotarrek halaxe eskatuta eraiki zen San Juan basiliza ere (34-10).

Gotiko estiloaren aztarnak Araiztegi (34-8) eta Ubitarte (34-6) baserriek ere erakusten dituzte.

#### ► Brinkola

Hirigune historikotik urrunen lekutzen da eta eraikuntzak trenbide-geltokiaren inguruan pilatzen dira, hiri egitura korapilatsua duela, trenbide-instalakuntzak, etxaldeak eta bestelako aretoak eremu oso txikian pilatzen bait dira.

Historikoki auzoaren egitekoa, nekazaritza-lanei, baso-ustiaketari eta burnigintzari emana egon da.

Joan zen mende amaiera arte ez zuen berezko elizarik izan. San Agustinen omenez egina dago (34-14) eta estilo neoklasikoa du. Aipagarria da Azpetitik ekarria dela **Ita-jina**, eta han Bariko San Nikolas bailitzan gurtzen zutela.

Erdigunean gainera, Igeralde Goikoa (34-13) eta Agirreburualde (34-12) gailentzen dira, biak ere sarrera-atari politak dituztela.

Ibaiari ibaiburu aldera gaina hartzen badiogu, ibarraren azalera zabaldu egiten da, hainbat baserriri leku eginez. Hauen artean Etxe Haundi (34-20) eta Guriditegi (34-19) dira aipagarrienak. Lehenengoak, leihoetan ertaroko testigantzak gorde ditu; Guriditegi oinetxea izan zen eta sarrera-arku polita du, fatxada nagusian armarrak gorde duela.

Hauetatik gertu eta Urola ibaiko uren gainean Igeralde errota (34-16) zutitzen da. Legazpian oraindik erabiltzen den errota bakarra da.

Burnigintzari uztarturiko iragan-industrial-detik, punta-puntakoa izan zena, Olazar burdinolaren harriak baizik ez daude (34-17). Barrendiola eta Urolaren ibaigurutzan leku-

zuen eta egoera honetaz baliatzen Zen bi ibaietako uraz hornitzeko. XV. mendetik eza-gutzen da bere berri. XIX. mendera arte indarrean iraun zuen eta gerora, argi-indarretarako ur-jauzi gisara erabili zen.

#### ■ Udana

Udanako goigunean Katabera (34-85) meatz-sailari uztarturiko azpiegituretako **elementu** garrantzitsuak gorde dira. Meatokiak Aizkorriko mendietan lekutzen dira, malda latzetako eremu batean. Ustiaketa modernoa Asturiasko meatzen erret-konpainiarenekin hasi zen 1824ean eta mendebeteko iraupena izan zuen, 1930 arte gutxi gora behera.

Burnia ateratzen Zen, batik bat, eta garbitu ondoren Udanaraino hari bitartez eramaten Zen, oraindik ere hantxe dauden labe ikaragarrietan urtzeko (34-84). Labe alboan meatokiko buru eta arduraduna bizi Zen, hauen etxeek ere oraindik bertan dirautelarik.

Kataberara iristeko Udana nahiz Barrendiolan zehar egin daiteke bidea. Barrendiolatik joanez gero, Legazpiarrek Gasteiz alde-ra San Adrian zeharkatu behar ez izateko, XVI. mendean egindako bidea dago. Biozkorna izena eman zitzaion, bidea Arantzazu eta Urbia aldera bi zati egiten den muinoaren omenez.

Segurarren erantzuna berehala etorri Zen, ez bait zetozen bat Legazpiko burnia Gaztelara Seguratik igaro gabe eramatearekin. Gogoberotuta ibili ziren segurarrek Legazpik emandako ezetzaren aurrean, probintziako beste herri batzuren babesa jaso bait zuen honek, askoz ere motzago eta erosoago Zen beste errepede honen alde. Gero Kataberako meatzariak erabili zuten bide hau, Aizkorriko mendietan zehar egiten diren ibilaldietarako bide modura gorde delarik.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako  
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

